



EMF-REN ARLO TEKNIKOKO ARDURADUNAREN KONTRATAZIOA

Honen bidez, EMFren arlo teknikoko arduradun lanpostua beteko da, eta EMFren kirol-esparru eta mendi-jarduera guztia, lehiaketako nahiz lehiaketaz kanpoko esparru guztia, hartzen du barne.

Zuzendaritza Batzordearen mende eta hark gainbegiratuta lan egingo du, eta hari lotuko zaio gai ekonomikoetan.

POSTUAREN PROFILA

Kirol-kudeaketan eta aurrekontuak egiten esperientzia sendoa duen pertsona, eskakizun zorrotzeko inguruetan lan egiteko gai dena.

Taldean lan egiteko, sintesirako eta memoriak prestatzeko gaitasuna. Honako alderdi hauek balioetsiko dira:

- Mendiko prestakuntza edo kirol-teknikari prestakuntza; modalitate desberdinen ezagutza.
- Erdi-mailako titulazioa gutxienez (unibertsitateko diploma edo antzekoren bat).
- Kirol-zuzendaritzan edo antzeko zereginetan hiru urteko lan-esperientzia.
- Euskaraz jarduteko erraztasuna, eta ingelesa edota frantsesa ezagutzea.
- Ohiko bulegotika-esparruetan lanean ohituta egotea.
- Aurretiazko esperientzia mendiko kiroleko edozein arlotan, Goi Mendi Eskolan edo EMFren sorospen-taldeetan.
- Ahoz nahiz idatziz ongi adierazteko gaitasuna, eta kirol-batzordeak kudeatzeko ekimena.

FUNTZIOAK

EMFren arlo teknikoko arduradunak honako zeregin hauek izango ditu bereziki:

- Zuzendaritza Batzordeari teknikoki laguntzea.
- Jardueren urteko plana proposatzea.
- Zereginen aurrekontua zuzentzea, bultzatzea eta kontrolatzea.
- Kirol-batzordeak eta sorospen-taldea koordinatzea.
- EGMEko zuzendaritzarekin batera lan egitea.
- Jardueren urteko memoria egitea.
- Dokumentu ofizialak izapidetzea.
- Dagozkion kirol-erakundeekin harremanetan egotea.
- Kirol-ekitaldietan EMF ordezkatzea.

HAUXE ESKAINTZEN DA

- Berehala lanean hastea.
- Lanaldi partzialeko kontratua (beharren arabera luza daiteke), ordutegi malgua (asteburu batzuetan lan egin beharko da).
- Hitzarmenaren araberrako ordainsaria.

Ezinbestekoa da autoa izatea eta bidaiatzeko eragozpenik ez izatea.

ESKAERAK

Bidali curriculuma helbide honetara: gasteiz-emf@emf-fvm.com, otsailaren 14tik martxoaren 4ra bitartean, azken egun hori barne.

Gasteizen, 2016ko otsailaren 11n